



Naroa Etxeandia - Nerea Cassi

Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

• Itxaso Martin Zapiain	3
• Sarrera	3
• <i>Ni, Vera</i>	4
• Iritzia	7
• Biblio-Webgrafia	8

Itxaso Martin Zapirain



Itxaso Martin Zapirain Donostian jaio zen 1981ean. Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Gizarte eta Kultur antropologian lizentziatu zen Euskal Herriko unibertsitatean. Gaur egun, emakumea eta psikiatra gaiari buruzko doktore tesia egiten ari da. Kazetari lanetan, irratan zein telebistan aritu da.

Oraindik, bakarrik *Ni, Vera* obra idatzi du, bere doktoradutza proiektuan lanean ari delako.

Sarrera

Itxaso Martinen nobela honek, Martina du protagonista. Martina Donostian bizi da, bere mutil lagunarekin, Peru. Martinak zoratzen hasi dela pentsatzen du, eta bere birramonaren historia jakin nahi du, honek psikiatrikoan eraman zuela urte asko...

Nobela honetan, amodioa, familia, eta buruaren jokaerak nahasten dira. Buruaren aldrebestek erakusten dizkigu idazleak bere obran, zein kontrolaezinak diren, eta nola gauza txar moduan ikusten diren gure gizartean. 2012. urtean idatzita dago, gaur eguneko nobela, zeinetan oraingoa den historia eta iraganean pasatutako bat kontatzen diren.

Norbere nortasunaren erraietan barneratzen ausartu da Itxaso Martin bere lehen eleberr honetan, pertsonaiaren tolesetan arakatzuz eta denok ditugun alderdi ilunetan murgilduz.

Ni, Vera

Kokapena

Denbora aldetik, esan daiteke XIX. mendean dagoela Martina, eta Vera XX. mendean bizi izan dela, lehen hamarkadetan hain zuzen. Istorioa Donostin gertatzen da, benetan existitzen diren lekuetan; besteak beste Donostiako kaleak, jatetxeak, eta kafetegiak agertzen dira. Ere itsasoa aipatzen da, protagonistari ematen dion lasaitasunari lotuta. Bartzelona eta Bilbo ere aipatzen dira, baina ez dira oso leku inportanteak.

Nobelaren zati handiena, psikiatrikoan gertatzen da, Verak ia bere bizitza heldu osoa hor eman duelako eta bere historia oso garrantzitsua delako Martinarentzat.

Gaia

Gai nagusia zoramena dela esan daiteke, baina horrez gain beste gai batzuk ere ukitzen ditu nobela honek.

Argumentua

Erotzeko zorian sentitzen da Martina, zer gertatzen zaion ez dakiela. Nahiz eta mutilak lagundu, nahiz eta psikoloarenera joan, amildegiaren ertzetik gero eta gertuago dago, eta zuloak bertara erakartzen duela nabari du. Bere birramonaren historia jakin nahi du, bere buruaren pasarteak ulertu ahal izateko.

Istorioa

Ni, Vera nobela, bi zatitan banatu dezakegu. Lehenengo atalean, Martina eleberriko protagonistari buruz hitz egiten da, bere momentuko egorari buruz. Narratzaileak Martinaren egoera eta ekintzak kontatzen ditu bigarren pertsonan.

Obraren hasieratik Martina sufritzen ari da, momentuan duen egoera oso gogorra egiten zaio eta, gainera, ez da ausartzen inori kontatzen. Martina txarto sentitzen da, eta egunero sufritzen dago, bere osasun mentala kolokan, eta batez ere erotu egingo den beldur da. Gero eta txartoago ikusten du bere burua, bere senideak ikusteko ez da gai, zerbait nabarituko dutelakoan. Ez dago argi zer den Martinari gertatzen zaiona, ez da zehazki esaten, baina argi dago ez dela normala. Noizbehinka gorputzari min egiteko gogoak etortzen zaizkio, eta baita bere buruaz beste egiteko gogoak. Bere mutil lagunarekin bizi da, Peru, eta berak ere ez daki Martinak zer sentitzen duen, ez delako guztia kontatzeko gai sentitzen. Baina Peruk arraro dabilela susmatuz, psikologoarenera eramateko beharra ikusten du, eta nahiz eta kostatu lortu egiten du azkenean. Psikologoarenean, herentzia kontua izan zitekeela jakiten duenean, Vera Etxebarria, bere birramonari buruz ikertzen hasten da Martina. Bere birramonak antzeko gaixotasuna izan zuela uste zuelako, eta nobelaren bigarren zatia Martina Veraren inguruko datuak aztertzen dagoen denboraldia da.

Bigarren partean, esan bezala, Martinak bere birramonaren inguruko ikerketak egiten ditu bera egondako psikiatrikoan. Oraingoan, Veraren bizitzaren erreposoa lehenengo pertsonan kontatzen da, nahiz eta hilda egon, eta Martinarekin hitz egiten egongo balitz bezala idatzita dago. Verak, psikiatrikoan izandako bizitza kontatzen dio Martinari, baita bertara zergatik sartu zen eta egunez egun izandako bizimodua. 40ko hamarkadakoa da, eta garai horretan emakumeak psikiatrikoan sartzea ez zen batere arraroa; hainbat eta hainbat emakume izaten ziren bertan. Vera zoramenera eraman zuten urratsetan lehena ume galtze bat izan zen, aborto bat; hortik aurrera, bere bizitza okertzen hasi zen, etxeko lanak egiteari utzi eta seme-alaben zaintza ere bazter utzi zuen. Geroztik, Veraren bizitza jausten hasi zen, senarrak egun batean bere buruaz beste egiteko zorian

ikus zuen arte. Orduan, senarrak Vera psikiatrikora eramatea erabaki zuen. Bertan igaro zuen bere bizitza osoa, bisitak ere izan zituen, haien artean bere alabarena, baina gehienetan uko egiten zien bisitei, ezezkoa adierazita.

Azkenik, Veraren bizitza jakin ostean, nabarmena den amaiera gertatzen da; bikotearen agurra, Peru eta Martina urrundu egiten dira istorioaren amaieran eta egunerokoaren gatazkak eta inkomunikazioa gero eta nabarmenagoak egiten dira.

Pertsonaiak

Martina. Erotzen ari dela sentitzen du. Gertatzen ez diren gauzak ikusten ditu eta bere buruak hitz egiten dio beste pertsona bat balitz bezala. Bere mutil-laguna laguntzen saiatzen da, baina ez dago Martina zulo beltzetik ateratzeko modurik. Bere izu irrazionalak bizitza bertan behera uzteko pentsamenduak eragiten dizkio.

Vera. Martinaren birramona zen. Ezkondu eta lau ume izaten ditu, baina bosgarrenaren haurdun dagoenean, abortatu egin behar du, diru faltagatik. Abortu horrek zoratu egiten du, eta 40 urtez ingresatzen dute psikiatriko batean. Hor, sendatzen den bitartean, era guztietako emakumeak ezagutzen ditu. Bere familiak, senarrak batez ere, ez dio bisita askorik egiten, urte haietan oso txarto ikusten zituztelako buruko gaixotasunak.

Egituraketa

Kapituluka egituratuta dago nobela hau, hain zuzen ere zazpi kapitulutan banatzen da. Autoreak istorioa kontatzeko egitura lineala erabili du. Nobela honetan, Vera hilda dagoen Martinaren birramonaren istorioa kontatzen da; horrek adierazten du protagonistaren momentuko egoera, egoera larria, ero egongo balitz bezala sentitzen da.

Horrela, obra bi zatitan banatzen dela esan dezakegu: alde batetik Martinaren bizitza kontatzen da eta, beste alde batetik, Veraren bizitza, psikiatrikoan sartu zutenetik hil arte.

Baliabideak

Espresaera aldetik, narrazioa eta elkarrizketak dira nagusi, eta liburuko protagonistaren eromena adierazteko, elkarrizketak modu bitxian daude adierazita.

Sentimenduen deskribapenek garrantzi handia dute istorioan, Martinaren egoera aipatzen da momentu oro, bere bakardadea, bere gorputza zoramen hutsera eramango duten pausoak, eta kezkatuta ere nabaritzen da Martina, inori kontatu nahi ez dion arazoa duelako; eta bakarrik konpontzen saiatzen da, bere birramonari buruzko datuak bilatuaz.

Elkarrizketak ez dira oso nabariak nobelan, Martina eta Peruren artekoak dira gehienbat. Baina hitz egin ordez, Martinak bere pentsamenduak eta sentimenduak idazten igarotzen du eguna, eta aitzaki moduan familiakoei lanpetuta dagoela esaten die, lasai utz dezaten. Kontatzeko estiloari dagokionez, obra landua dela esan dezakegu.

IRITZIA

Itxaso Martinen eleberri hau guztiz gomendagarria da. Idazleak mundu guztiz irudimenezkoa sortu du, benetako munduarekin nahastuta. Lehen momentutik harrapatzen du irakurlea eta istorioan guztiz barneratzea lortzen du, Martina eta bere birramonaren munduan balego bezala.

Istoria guztiz berria eta originala da eta misterioz betea ere badago. Trama obraren hasieran aurkezten da, eta ez da konpontzen azken momentura arte.

Gai asko tratatu arren, erakargarriena maitasuna da. Azkenean amodioa amaitu arren, benetan gustagarria gertatzen da Peruk Martinarekin ze pazientzia duen, eta zenbat laguntzen dion.

Laburbilduz, merezi du eleberri hau irakurtzea, irakurleak bere buruaz pentsa dezan laguntzen duelako.

BIBLIO-WEBGRAFIA

Ni, Vera. Itxaso Martin Zampirain. Elkar.

<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/zumarraga/lang/es/ni-vera/>

<http://www.agapea.com/libros/Ni-Vera-9788415337829-i.htm>

<http://www.ametx.eus/es/agenda/itxaso-martin-ni-vera>